



**HEZKUNTZA SAILEKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEAREN JARRAIBIDE OSAGARRIA, ESKOLA-JARDUERA PRESENTZIALA ETENDA DAGOEN BITARTEAN SAIL HONEN MENPE DAUDEN LAN-LEGEPEKO HEZITZAILE, GARBITZAILE ETA SUKALDARIEK LANPOSTURA JOATEKO DUTEN ARAUBIDEARI BURUZKOA.**

2020ko martxoaren 13an, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen Instrukzioa eman zen, zeinaren bidez irakasleak lanpostura joateko araubidea ezartzen baita, COVID-19 koronabirusaren pandemiaren ondorioz dugun osalarrialdiko egoeraren ondorioz eskola-jarduera presentziala etenda dagoen aldian.

Instrukzio hori Hezkuntza Sailaren menpe dauden irakasleei zuzenduta baino ez zegoen, eta, beraz, hura osatu egin behar da, ikastetxeetan zerbitzuak ematen dituzten beste langileen kolektiboari hedatuz eta lanpostura joateko duten araubidea, era berean, ezarri.

Gauzak horrela, lan-kontratadun hezitzaileei dagokienez, 2020ko martxoaren 13ko Instrukzioan ezarritakoa aplikatuko da osoz.

Garbiketako langileei dagokienez, ikastetxeetako zuzendaritzei dagokie lanaldia planifikatzea eta antolatzea.

Sukaldeko langileei dagokienez, zuzendaritzen eskura egongo dira beti, ikastetxera deituak izateko.

Oro har, egun dauden lanaldi-ehunekoak mantenduko dira aldi horretan, behar bezala justifikatutako eta egiaztatutako kasuetan izan ezik.

**INSTRUCCIÓN COMPLEMENTARIA DE LA VICECONSEJERA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN EN RELACIÓN AL RÉGIMEN DE ASISTENCIA A SU PUESTO DE TRABAJO DEL PERSONAL LABORAL EDUCATIVO, LIMPIEZA Y COCINA DEPENDIENTE DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DURANTE EL PERIODO DE SUSPENSIÓN DE LA ACTIVIDAD ESCOLAR PRESENCIAL.**

Con fecha 13 de marzo de 2020, se dicta Instrucción de la Viceconsejera de Administración y Servicios del Departamento de Educación, por la que se establece el régimen de asistencia del personal docente a su puesto de trabajo, durante el periodo de suspensión de la actividad escolar presencial consecuencia de la situación de emergencia sanitaria en que nos encontramos por efecto de la pandemia del coronavirus COVID-19.

La citada Instrucción se refiere exclusivamente al personal docente dependiente del Departamento de Educación, por lo que procede complementar la misma ampliándola a otros colectivos de trabajadores que prestan servicios en los centros educativos cuyo régimen de asistencia es, asimismo, necesario regular.

Así, en cuanto al personal laboral educativo, será de aplicación en su totalidad lo establecido en la Instrucción de fecha 13 de marzo de 2020.

En cuanto al personal de limpieza, le corresponderá a las direcciones de los centros educativos la planificación y organización de su jornada.

En cuanto al personal de cocina, estarán en todo caso a disposición de las Direcciones para cuando pudieran ser requeridos al centro.

Con carácter general, se mantendrán durante este periodo los porcentajes de jornada existentes, salvo casos debidamente justificados y acreditados.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 16an.

Olaz Garamendi Landa  
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordea.  
HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN